

Euskaraz jakitea meritutzat aitortu diete, lehen aldiz, bi epaile euskalduni

Aginte Judizialaren Kontseiluak antzinatasunaz saritu ditu Augusto Maeso eta Jaime Tapia

Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ) antzinatasunaz saritu ditu euskararen ezagutza egiaztatu duten bi epaile. Justizia administrazioan hizkuntz koofizialtasuna duten erkidegoetako berezko hizkuntza jakitea meritutzat hartzen den lehen aldia da hau.

Erredakzioa / Donostia

EPAILAEN aginte organu gorenak, CGPJk, lehen aldiz hartu ditu meritutzat erkidegoetako hizkuntza koofizialak eta zuzenbide berezituak jakitea. Euskal Autonomia Erkidegoko epaileak ez ezik, jakintza horiek egiaztatu dituzten, Kataluniako, Valentziako eta Galiziako epaileak ere saritu dituzte antzinatasunaz.

CGPJk joan den otsailean onartu zuen erkidegoetako berezko hizkuntza eta legea meritutzat hartzen duen araudia. Onarpen horren ostean deialdia ireki zen epaileek ezagutza horiek egiaztatu zituzten, eta azkenean, joan den azaroaren 10ean onartu zen ebazpena. Atzo ezagutarazi zen erabakiaren arabera, estatu osoko 68 epaile eta magistraturen merituak hartu dituzte aintzat.

Lehen deialdi honetan, bi epaile euskalduni onartu zaie merezimendua euskara jakiteagatik: Augusto Maeso Ventureira Iruongo epaileari eta Jaime Tapia Parreño Gasteizko epaile dekanuari. Tapiak, gainera, foru legearen ezagutza ere egiaztatu du. Bi epaile euskaldun horiez gain, beste 32 epaile katalan, 12 valentziar eta 7 galiziarrei ere aitortu zaie merituak.

Horiek guztiak, baina, ezerezan gera litezke, baldin eta CGPJk onartutako araudiari jarritako errekurtsoak aurrera egiten badu. Magistraturako Elkargo Profesionalak (APM) —jite kontserbadorekoa, elkarte nagusia da epaileen artean— errekurtua dauka araudia. Elkarte horrek ez du onartzen epaileen promoziorako bitartekoak aldatzea —orain arte esperientzia baino ez zen kontuan hartzen—.



Justizia Administrazioaren hizkuntz normalizazioa eskatzeko egindako protestaldi bat.

JAGOBA MANTEROLA

Erkidegoak, elkarlanean

SABIN INTXAURRAGA eta Nuria de Gispert Eusko Jaurlaritzako eta Generalitateko Justizia sailburuak Bartzelonan bildu ziren atzo, eta onartu zuten arlo horretako eskumenak dituzten beste lau erkidegoekin batera konferentzia sektoriala bultzatzea, justizia administrazioa «erreformatu eta modernizatzeko» aldera. Beren asmoa da helburu hori lortzeko dituzten proposamenak

biltzea eta guztiak modu bateratuan aurkeztea Espainiako Justizia ministerioari. Horretarako, EAE, Katalunia, Galizia, Kanaria Irlak eta Andaluziako Justizia sailburuek bilera egingo dute datorren urtearen hasieran. Goi bilera horren aurretik, Gabonak baino lehen, erkidego horietako justizia sailburuordeak bilduko dira, ekimenak koordinatzeko.

Intxaurragak esan zuenez, «gai asko ditugu komunean, eta beraz zentzuzkoa da Justizia arloko eskumenak ditugun erkidego guztiak elkarlanean aritzea». Elkarlan esparru horien artean, hizkuntz normalizazioari dagokiona azpimarratu zuten Jaurlaritzako Justizia sailburuak.

Intxaurragak bezala Gispertek ere lehentasuna eman zion justizia administrazioan

hizkuntz normalizazioa lortzeari. Bi sailburuek azpimarratu zuten, epaitegiek nahitaez egokitu behar dute erkidegoetako egoera linguistikoetara.

Ildo horretan, Intxaurragak azaldu zuen orain arte zailtasunak izan dituztela elebistasuna bultzatzeko. Hala ere, EAEko epaileek aldeko jarrera dutela eta, egoera aldatuko den esperantza agertu zuen.

17 epaile euskaldun EAEn. Euskal Autonomia Erkidegoan 180 epaile eta magistratu ari dira jardunean. Horietan 17 baino ez dira euskaldunak —euskaldunen artean bi baino ez diren aurkeztu deialdira— eta beste 68 euskara ikastaroetan parte hartzen ari dira.

Euskara ikastaroetan parte hartzen ari diren epaileen artean, EGA ateratzeko edota arlo juridikoko euskara teknika hobetzeko ikastaroetan ari dira gutxi batzuk. Epaile gehien gehienak, ordea, oinarritzko mailako ikastaroetan ari dira euskara ikasten. X

VITORIA-GASTEIZKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE VITORIA-GASTEIZ

BANDOA

GURPILDUN IBILGAILUAK SAN ANTONIO KALETIK SAN PRUDENTZIO KALERA SARTZEA ALDI BATEZ DEBEKATZEA

"San Antonio kaleko egokitze lanak" direal eta, eta San Prudentzio kalearekiko gurutzeta atondu beharrak eraginda, **San Antonio kaletik San Prudentzio kalera** sartzea galarazi egingo zaie gurpildun ibilgailuei aldi batez. San Prudentzio kalera Foru kaletik sartu ahal izango da.

Neurri horiek abenduaren 3an eta 4an izango dira indarrean, azken egun horretan amaituko baitira egin beharreko egokitze lanak.

Vitoria/Gasteizen, mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko azaroaren hogeita zortzian.

ALKATEA



IRUNGO UDALA

HERRI MAILAKO KOMUNIKABIDEEN IHARDUERAN EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

(U.G.B. 98-11-25eko bilkuran hartutako erabakia). DELALDIAREN OINARRIAK. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ESTA EPEA:

Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuan (SAC), Juan de la Cruz kalea, 2, behean, abenduaren 11ko 19,30 h. arte. Informazio gehiago, Oinarriak eta Eskaera ereduak jasotzeko edo etxera bidaltzea nahi izan ezker, 010 telefonora deitu.

IRUN, 1998ko azaroak 27

ALKATEA /

AYUNTAMIENTO DE IRUN

CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA EN EL AMBITO DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN LOCALES

(Acuerdo de C.M.G. de 25 de noviembre) BASES DE LAS CONVOCATORIAS. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:

En el Servicio de Atención al Ciudadano (SAC), c/Juan de la Cruz 2, bajo, hasta las 19,30 horas del día 11 de diciembre.

Para mayor información, recogida o envío a domicilio de Bases y modelo de solicitud, llamar al teléfono 010 IRUN, 27 de noviembre de 1998 EL ALCALDE

HIRITARRA ATENDITZEKO ZERBITZUA

Udaleko gestio guztiak

Juan de la Cruz, 2, kalea -Plaza Ensanche-

SAC
010

SERVICIO DE ATENCIÓN AL CIUDADANO

Todas las gestiones con el Ayuntamiento

8,30-14 h. / 16-19,30 h. // 8,30-13,30 h. (larunbatetan)